

MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO jaunak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko ekinaren 23an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

12.- 7.3 EXEKUZINO UNIDADEAN APARKALEKUA EGITEKO OBRA KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

7.3 exekuzino unidatean aparkaleku bat egiteko obra kontratua behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2010eko apirilaren 28an, Tokiko Gobernu Batzarrak, 7.3 exekuzino unidatean aparkaleku bat egiteko proiektua eta administrazio baldintza zehatzen orria onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Aitatutako kontratazio-prozesura lau parte-hartzaile aurkeztu dira:

- Indarlanak
- Satur Gómez
- Olabbarri
- Leandro Gómez

Argudioak

Bakarra: 2010eko bagilaren 22an emondako txosten teknikoaren arabera, hauxe izan da eskaintza bakotzak lortutako puntuazioa:

Eskaintzak	Bakoitzaren prezioak, eurotan	Aurrekontuaren (49.410,26 euro- BEZ barne) arabera beherakada	Prezioa 0-80	Obra egiteko epea 0-20 (hilabete)	Guztira
INDARLANAK	32.786,65	33,6%	80	10 (hilabete)	90
SATUR GÓMEZ	46.544,47	5,8%	13,8	10 (hilabete)	23,8
OLABARRI	48.946,26	0,9%	2,1	10 (hilabete)	12,1
LEANDRO GÓMEZ	46.891,92	5,1%	12,1	20 (25 egun)	32,1

Bigarrena: Ikusi daiteken moduan Indarlanak enpresek %33,6-ko beherakada egiten dau. Honen inguruan Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeko 136. artikulua honako hau xedatzen dau:

3. Cuando se identifique una proposición que pueda ser considerada desproporcionada o anormal, deberá darse audiencia al licitador que la haya presentado para que justifique la valoración de la oferta y precise las condiciones de la misma, en particular en lo que se refiere al ahorro que permita el procedimiento de ejecución del contrato, las soluciones técnicas adoptadas y las condiciones excepcionalmente favorables de que disponga para ejecutar la prestación, la originalidad de las prestaciones propuestas, el respeto de las disposiciones relativas a la protección del empleo y las condiciones de trabajo vigentes en el lugar en que se vaya a realizar la prestación, o la posible obtención de una ayuda de Estado.

En el procedimiento deberá solicitarse el asesoramiento técnico del servicio correspondiente.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: 7.3 exekuzino unidatean aparkaleku bat egiteko obra kontratua behin-behinekoz INDARLANAK enpreseari esleitzea, berak egindako eskaintza justifikatzen dauen dokumentazinoa aurkeztera baldintzauta.

BIGARRENA: Dokumentazino hori 15 eguneko epean aurkezten ez bada edota udalak justifikazino hori ez badau onartzen Indarlanak enpreseari egindako behin-behineko esleipena bertan behera geratuko da.

HIRUGARRENA: INDARLANAK jakinarazotea behin-behineko esleipenaren iragarkia kontratugileen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 15 eguneko epean, konpultsau barik daukazan agiriak (halan izatekotan) konpultsau beharko dauzala eta behin betiko bermea jarri beharko dauela, eta, holan egin ezean, behin-behineko esleipena bertan behera geratuko dala.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko ekainaren 25ean.

ONETSIA
ALKATEA